

DEIALDIA

Alimentaria 2016 Barcelona

Egunak: 2016ko apirilak 25tik 28ra.

Lekua: FIRA Bartzelona -
Gran Viako esparrua.

Maiztasuna: Bi urtez behin.

Norentzat: Elikadura industriako
profesionalak, oro har
(supermerkatu kateak,
banatzaileak, handizkariak
eta txikizkariak).

Izen-emate epea:
2015ko urriak 23a.

Azokaren web orria:
www.alimentaria-bcn.com

Informazio gehiago: Tel.: 94 470 65 00
Nora Goitia/Lucía de Artaza:
agro@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate fitxa



Euskal elikadura industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, enpresen parte-hartze multzokatua antolatu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ALIMENTARIA 2016 Elikagai eta Edarien Nazioarteko Azokarako.

Azoka Bartzelonan izango da, **2016ko apirilaren 25tik 28ra.**



Azokaren izaera

Alimentaria 2016

Erakusketa-eremua: 94.743 m²

2014ko erakusketariak: 75 herrialdetako 3.936 erakusketari

2014ko bisitariak: 140.386 bisitari profesional. Horietatik,
42.117 bisitari 143 herrialde ezberdinetatik etorritakoak

Edizioa: 21.a

Azokaren web orria: www.alimentaria-bcn.com

Bartzelonako Alimentaria azoka Elikagai eta Edarien Espainiako Nazioarteko Azoka garrantzitsuenetako bat da, eta munduko lehenengoetako bat. Erreferentziako ekitaldia da, eta eskaintzaren espezializazio maximoa, berrikuntza eta kanpora irteteko bokazio nekaezina dira horren arrakastaren gakoak.

Aurreko edizioei dagokienez, berregituratu eta, aldi berean, areagotu egin ditu Alimentaria 2016 azokak enpresa erakusketarien parte-hartze aukerak, ardatz eta kontsumo-joera berrietan oinarrituta.

2016an, ondorengo hauek izango dira pabiloiak:

- Multiple Foods,
- Intervin, Intercarn,
- Interlact,
- Restaurama.

Eusko Jaurlaritza Multiple Foods (Lands of Spain eta Expoconser) eta Intervin pabiloietan egongo da.

Hainbat gertakari paralelo ere eskainiko ditu Alimentaria azokak. Alde batetik, The Alimentaria Hub eta The Alimentaria Experience, eta berrikuntzarekin, nazioartekotzearekin eta erakustaldi gastronomikoekin lotutako ekintza ugari egingo dira.



Parte-hartze baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herrian egindako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden ekoizpen-enpresek bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-eguneari, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ez da beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztuko, inolaz ere.
- Azokak iraun bitartean erakusmahai egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eta entregatu, organizazioaren argibideak jarraituz.

Parte-hartze eredua eta kostua

Parte-hartze eredua

2016ko edizioan, 700 m² inguruko eremua edukiko du Eusko Jaurlaritzak, eta kalitatezko elikagaiak eta edariak ekoizten dituzten Euskal Elikadura Industriako enpresak hartuko ditu.

Eusko Jaurlaritza ondorengo pabiloi hauetan egongo da:

- LANDS OF SPAIN.
- EXPOCONSER.
- INTERVIN.

Parte hartzeko hiru aukera eskainiko dira:

- **BANAKAKO erakusmahaia.**
- **Erakusmahai PARTEKATUA:** eremu komuna enpresen artean bereizgailurik gabe. Stand eredu horrekin parte hartzen duten enpresek kontuan eduki behar dute lekua dela-eta ezingo dutela euren tokian hozkailu-bitrinarik jarri, ezta dekorazio-elementu osagarrikerik ere.
- **Erakusmahai BIKOITZA.**

Parte-hartze eredua eta kostua

ALIMENTARIA 2016 azokan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktuak transformatzen eta komertzializatzen dituzten enpresen parte-hartzea sustatuko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak.

Jarraian, parte-hartze kostuaren gaineko diru-laguntzen inguruan egingo den sailkapena adieraziko da.

1 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko lehengaiez hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

Enpresa horiek %70eko diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

810 € + BEZa = 980,10 €

Banakako erakusmahaia:

1.620 € + BEZa = 1.960,20 €

Erakusmahai bikoitza:

3.240 € + BEZa = 3.920,40 €

2 MOTAKO ENPRESA

Euskal Herrikan kanpoko lehengaiez hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produkzioerik ez badago, betiere.

Enpresa horiek %50eko diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

1.347,50 € + BEZa = 1.630,47 €

Banakako erakusmahaia:

2.695 € + BEZa = 3.260,95 €

Erakusmahai bikoitza:

5.390 € + BEZa = 6.521,90 €

3 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza %30ekoa izango da, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

1.887,50 € + BEZa = 2.283,90 €

Banakako erakusmahaia:

3.775 € + BEZa = 4.567,75 €

Erakusmahai bikoitza:

7.550 € + BEZa = 9.135,50 €

Oharra: stand bikoitza edo partekatua enpresa parte-hartzaileen guztizko kopuruaren arabera esleituko da.

Parte-hartze kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- %50 + BEZa (%21), izena emateko unean eta leku erreserba gisa.
- Gainerakoa, azoka baino 60 egun lehenago ordainduko da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate fitxa, behar bezala beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 23an

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartzeko interesa baduzu izen-emate fitxa behar bezala beteta lehenbailehen bidaltzeko gomendatzen dizugu; **94 422 0061** faxera edo **agro@camarabilbao.com** helbide elektronikora bidali, Nora Goitia/Lucíaaren izenean.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu, faxez edo posta elektronikoz, adierazitako helbideetara:

1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.

Fitxa horretatik hartuko dira azokako katalogo ofizialerako eta gainerako promozio-ekintzetarako datuak.

2. Lekua erreserbatzeko kuotaren ordainketa-egiaztagiria (kostuaren %50 + %21eko BEZa)

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + ALIMENTARIA2016".

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bica: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 23a.



Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI FUNDAZIOAren Finantza Sailak bidaliko du **dagokion zenbatekoaren faktura parte-hartzea egiaztatu ondoren.**

Bigarren zatikako ordainketa azoka baino 60 egun lehenago egingo da.

GARRANTZITSUA:

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea; Sailak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du aldez aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.

Eskeinitako zerbitzuak

ourkibidera itzuli



[1\) Eremuaren kontratazioa](#)

[2\) Dekorazioa](#)

[3\) Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura...\)](#)

[4\) Salgaien garraioa](#)

Eusko Jaurlaritzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

[Eremuaren kontratazioa](#)

Enpresa erakusketari bakoitzarentzat pertsonalizatutako standetan (banakakoa, bikoitza edo partekatua) banatutako sustapen-eremu batean parte hartuko da.

[Pabiloiaren dekorazioa](#)

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko altzariak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

- **Banakako erakusmahaia:** mahaia eta 4 aulki, mostradorea, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia.
- **Erakusmahai bikoitza:** 2 mahai eta 8 aulki, 2 mostradore, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia.
- **Erakusmahai partekatua:** Mostradore txikiagoa, enpresen artean bereizte-trenkadarik gabe, bileretarako eremu batekin eta modalitate horretako enpresa guztientzako biltegi partekatu batekin.

Oharra: stand partekatuko modalitate horretan, lekua dela-eta enpresa erakusketariak ezingo dute hotz-kamerarik jarri.

[Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar\)](#)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeaz.

Potentzia elektrikoak mugak eta gehieneko kontsumoak edukiko ditu erakusmahai bakoitzeko; bertara joateko izapideak prestatzen hasitakoan jakinaraziko zaizkie horiek erakusketariei.

Oharra: kostu handiagoa edo aldaketa suposatzen duen oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo erakusmahaien behar elektrikoen inguruko edozein aldaketa zuzenean fakturatuko dio dekoratzaileak enpresa erakusketariari, eta horrek ordainduko du diferentzia.

[Salgaien garraioa](#)

Eusko Jaurlaritzak salgaien garraio multzokatua antolatuko du, garraiolari ofizialak adierazitako leku komunetik erakusmahairaino. Bere garaian adieraziko dira garraio-enpresa esleipendunaren datuak.

Garraioaren kontratazioa banakakoa izango da; beraz, garraiolariak enpresa erakusketariari fakturatuko dio zuzenean salgaiak garraiatzearen kostua, eta horren kontura izango da zerbitzu hori.

jarraitu



Eskeinitako zerbitzuak

[5\) Kopa zerbitzua](#)

[6\) Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak](#)

[7\) Azokako katalogo ofizialean sartzea](#)

[8\) Komunikazio eta zabaltze kanpaina](#)

[9\) Azokako sustapen-ekintzak](#)

[10\) Negozio-aukerak](#)

[Kopa zerbitzua](#)

Kopen alokatzea erakusketariaren kontura izango da. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Saila enpresen zerbitzura dago zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.

Intervin Pabiloian, kopak garbitzeko leku bat jarriko du Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak erakusketarien zerbitzura enpresentzat, horretarako lekua badago, betiere.

[Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak](#)

Hotz-kameren edo bestelako etxetresna elektrikoen alokatzea erakusketariaren kontura izango da. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Saila enpresen zerbitzura dago, hornitzaileak zuzenean enpresa erakusketariari fakturatuko dion zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.

[Azokako katalogo ofizialean sartzea](#)

Eusko Jaurlaritzak, beharrezko izapideak egingo ditu azokan izango diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolatzaileek argitaratzen duten katalogo ofizialean, azokako erakusketari guztiak biltzen dituenean, ager daitezen (IZEN-EMATE FITXATik jasotako datuak agertuko dira).

[Komunikazio eta zabaltze kanpaina](#)

Eusko Jaurlaritzak azokako presentziari buruzko komunikazio kanpaina masiboa egingo du prentsa

espezializatuaren eta balizko erosleen artean, eta gure enpresak ikustera eta gure produktuak dastatzera gonbidatuko ditu.

[Azokako sustapen-ekintzak](#)

Azokaren harira, hainbat ekintza, foro, hitzaldi eta tailer antolatuko dira. Zure enpresak horietan guztietan parte hartzeko aukera eskaintzen dizu Alimentariak, ahalik eta nabarmentasun eta bisibilidade handiena lortzeko. Hona hemen ekintza horietako batzuk: The Alimentaria Hub, Vinorum, España el país de los 100 quesos (Espainia, 100 gazten herrialdea), The Alimentaria Experience. Unean-unean emango da ekintza interesgarri guztien berri.

Azokako sustapen-ekintza hauen kostuak enpresa erakusketari bakoitzaren kontura izango dira.

[Negozio-aukerak](#)

Alimentaria azokak hainbat tresna eskaintzen ditu erakusketari eta nazioarteko erosleen artean harreman komertziala eta alde biko lankidetzak, banaketa eta berrikuntza topaketak egiten laguntzeko ekintzen bidez azokako presentzia optimizatzeko. Nekazaritza industria kanpoan lehiakorragoa izatea bilatzen da horrekin. Unean-unean emango da ekintza interesgarri guztien berri.

Azokako sustapen-ekintza hauen kostuak enpresa erakusketari bakoitzaren kontura izango dira.

Izen-emate fitxa

Alimentaria 2016

[aurkibidera itzuli](#)



Eusko Jaurlaritzaren pabiloian egon nahi dut, ALIMENTARIA 2016 azokako erakusketari, ondorengo baldintza hauetan:

Banakako erakusmahaia

Erakusmahai partekatua

Erakusmahai bikoitza

Oharra: erakusmahai bikoitza eta partekatua ematea edo ez enpresa parte-hartzaile kopurura baldintzatuta egongo da.

Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERAKO:

Oharra: izen hau erabiliko da sustapen-elementu guztietan.

Izen soziala:

IFK:

Elikadura Industrien Erregistroko zenbakia (RIA):

Helbidea:

Kalea/Plaza/Hiribidea:

PK - Herria:

Probintzia:

Tel:

Helbide elektronikoa:

Faxa:

Web orria:

Erakusmahaiaren arduraduna:

Sakelako telefonoaren zenbakia:

Erakusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Produktua

Marka

Produktua	Marka

Adierazi zein SEKTORE/PABILOITAN egon nahi duzun:

- LANDS OF SPAIN**
Erkidegoetako ordezkariak (edozein elikagai eta edari mota).
- EXPOCONSER** – Itsas, akuikultura eta arrain-haztegietako produktuak
- INTERVIN** – Ardoak eta edari biziak.

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Faxeiz itzuli, **94 422 0061** zenbakira, edo posta elektronikoko bidez **agro@camarabilbao.com** helbidera, **2015ko urriaren 23a baino lehen**, LEKUA ERRESERBATZEKO transferentziaren kopia erantsita.